

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko urriak 9 / II. urtea / 45. zenbakia

Amaieraren hasiera?

Euskal Herriko siderurgiaren bigarren birmoldaketarako egitasmoa apirilean aurkeztu zuen Espainiako Siderurgia Korporazioak (CSI). Eragin zuzenean Bizkaiko lantegietan nabaritutako badute ere, Nafarroakoak ez dira aparte geldituko, besteen adarrak izanda. Lesakako Laminacionesek (AHV) eta Ensidesako Perfrisak, langile kopuruaren murrizketa eta produkzioaren jaitziera somatuko dute hurrengo urteetan. Labe garaia eta altzairuaren soinua laster desagertu litezke.

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Asteleheneko periodikuetako argazkietan ikusi genuen (astelehenez ez da egunkariarik kaleratzen, periodikuak bakarrik). Bere gorputz ttikia ('ttikiagoa eta gaiztoagoa', non aditu dut nik halakorik?) gabardinaren estalpe babesgarrian bildua, eguraldiaz ez ezik, inguruan duen jendajeaz gerizatu nahi iduri. Serio dago, mutur beltzean kasik, bixar motxak eta antioju biribilek atsekabe keinua areagotzen diotela. Haren begitar-teak gisako egoeretan ohi den galdera eternala adierazten zuen: «zer egiten din hi bezalako neska batek hau bezalako toki batean?». Aezkoako larreetan galdutako amuarraina.


Euskariakoak kontent egon daitezke, beraiek antolatzen dituzten ekitaldiek hemengo erakunde ofizialetatik biltzen duten erantzun harigarria ikusita (ez dut uste Euskadin hala gertatzen zaienik). Baina, horrez gain, hain segur ere, nafar independentzia galdua oroitaraztera Amaiurrera bilduriko etazale eta garraioetxeakideen artean, Alli lehen dakariaren txapela nabarmentzen ikusi ondoan, huskeria da Javier Marcotegui igandean Garraldara joatea. Gobernu honen hainbat agerrialdik ez bezala, ez dut uste Pablo Mandazen apez apalaren omenaldian ofizialki parte hartzeak lurrikara gehiagorik ekarriko dionik UPN alderdiari. Bederen, ez dugu Aizpunen bihotz tratutxartuaren inarrosaldi berriren berririk.

Marcotegui han ikusteak, hala ere, badu zerik. Han edo hemen egin deklarazio motz eta lainozuez landa, Allik euskara edo euskal kulturaz egiazki zer pentsatzen duen, ez dakigu zuzen (artetik errateko, bada inor, bere andrea landa, Allik honetaz edo hartaz egiazki zer pentsatzen duen zuzen dakienik?). Aldiz, Marcotegui, kontseilari izan baino lehen erraten zituenak hemeroteke guztietan daude, argi eta garbi, eta gobernuakide bilakatu denetik mingaina zuhurtu bazaio ere, irakaskuntzaren munduan sarturik dabilen edonork daki nor den Hezkuntza eta Kultura Departamentuan euskararen zehatzaile eta oztopatzaile nagusia.

Politikoen lotsagabekeria ez da oraingo aferra. Zuri nahiz gorri, politikoak politiko izateko, lotsagabe behar du. Nahitaez. Euskara gorrotatzen duen politiko batek bere mintzaldia «egun on garraldarrak» erranez hasteak ez gintuzke, beraz, harritu behar. Beharbada bai poztu, aitzitik.

Argazki-kamarak, ordea, salatari zikin begi-bakar horrek, egiaren egia erakutsi zigun astelehenean: Marcoteguiaren mutur okerra, tripa jaten. Aezkoako larreetan galdutako amuarraina.

Beharbada, Iratik hura bilatzen zuen astelehenean, gainezka egin zuenean.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Euskararen iraupena Nafarroako 'gazteleran' izeneko erakusketa ikusgai dago Agoitzen, bertako udalak antolatutako. Nafarroako Gobernuak subentzionatutako erakusketa honetan, Nafarroako Erribera eta erdialdeko zonaldean oraindik ere irauten duten hitz euskaldunak agertzen dira. Erakusketa panele bidez antolatua daukate, eta panel bakoitzean gai bati buruzko hitzak azaltzen dira. Fauna, flora, sukaldaritza, etxebizitza eta osasun landareak dira aipatutako gaiak, beste batzuen artean.

'Euskara Nafarroan' izeneko erakusketa ikusgai dago Bianan, urriaren 19a arte. Igandean ospatzekoa den Nafarroa Oinez egunaren jaia dela eta, euskararekin zerikusia duten ekintza ugari izanen dira bertan, eta erakusketaren inaugurazioan, Rodriguez Otxoa nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako zuzendaria egon zen.

Asuncion Goikoetxea artistaren lanak ikusgai daude hiriburu Pintzel galerian, hilabete honen amaiera arte. Sakanako pintore honen lanak txuri-bel-tzean egindakoak dira, eta nahikoa abstraktoak. Erakusketa goizez zein arratsaldean dago zabalik.

ERRAN DUTE

Orain dela urte asko jaio nintzenez, Jainkoa nitaz ahaztu da, eta ez dit deitzen».

Honorio Perez
Alloko amina

«Arraroa egiten zitzaidan Osasunaren kontrako golak ospatzea».

Jose Angel Ziganda
Futbolaria

«Irabiako urtegiaren igandean inor izan balira, ez zatekeen gertatuko gertatu zena».

Aquilino Barberena
Bertako langile ohia

«Inbidia diet Everesteko gailurra lortu dutenei».

Mari Abrego
Mendigoizalea


Biana izanen da, nola ez, asteburu honetarako plana. Igandean ospatuko den Nafarroa Oinezek jende multzo handia eramanen du, beti bezala, herrira, eta Ebro inguruan festa polita igarotzeko parada ezin hobea dugu.

Larunbatean joanez gero, Bianak berak dauzkan abantailak gozatzeko aukera izanen duzu, igandeko pilaketa saihestu ahal izateko. Ez bait da txantxetako gauza herri txukun hau. Hain zuzen ere, aste honetan bertan izendatu du Nafarroako Gobernuak ondare kulturala.

Santa Maria Eliza Nafarroan eta Euskal Herria osoan aurki daitekeen ederrenetakoa dugu. 1250tik 1329ra bitarte eraikia, atea, erretabloa eta organoa parerik gabeko lanak ditugu. Halaber, hurrengo mendeetan zehar lan franko egin ziren berritze lanetan eta ondorioz ederki kontserbatutako ondarea da Santa Maria.

Aipatzekoak dira, era berean, udaletxea, 1685an eraikia, eta

Bianan barna



Parte Zaharrean bertan dauden zenbait etxe, izen handiko familakoak denak. Horien artean azpimarratzekoak dira Añoa eta Bustorena, 1700ekoa; Riparena; Ichasorena, XVIII mendekoa;

Muzquiz-Aldunaterena; Dicastillorena, Urria eta Cerecedarena.

Horrekin batera, eta herritik urrunago, badago toki franko, eguraldia lagun, egun ona pasatzeko.

ZINEMA



Cyrano de Bergerac pelikula famatua eskainiko dute datorren ostegunean, urriak 15, Tafallako Español zineman, bertako Kultur Patronatoak antolatutako. Bi saio egonen dira, bata arratsaldeko zortzietan eta bestea gabeko hamar t'erdietan. Sarrerak 175 pezetan salduko dituzte.

IKASTAROKAK



Dantzak ikasi edo fanfarre batean musika jo nahi dutenak Ortzadar Iruñeko euskal folklore taldearekin harremanetan jartzea besterik ez dute, taldeak berak jakinera eman duenez. Interesatuak dantza taldeak Descalzos kalean duen egoitzara joan daitezke, edo telefonoz deitu.

Bibliotekonomia ikastaroa antolatu dute Iruñeko IPES elkartekoek datorren asteartean, urriak 13, hasi eta azaroaren 4a arte iraungo duenari. Asteartean hiru egunetan izango da ikastaroa, astelehen, astearte eta asteazkenean, bi ordu egun bakoitzeko. Ikastaroaren zuzentzaile lanak egingo dituen Jone Lajos bibliotekaria izango da.

MUSIKA



Santa Cecilia orkestrak kontzertu bat eskainiko du datorren ostegunean, urriak 15, Iruñean, 1992-93 kanpainaren barruko lehendabizikoa hain zuzen ere. Musika saioak Gaiarre antzokian izango dira, arratsalde partean.

Antonio Ruiz kitarra jolearen kontzertua egonen da gaur, urriak 9, Tafallako kultur etxean, bertako Kultur Patronatoak eta musika kontserbatorioak antolatutako. Kontzertua arratsaldeko zortzietan izango da.

'Les Mecaniciens' taldea Bianan izanen da igandean, eguerdiko ordubatean. Xabier Muguruzak 'Arraroa noski' aurtengo Nafarroa Oinezeko kantaren egilea da. Beraz, kanta hori —nola ez ba— eta 'Les Mecaniciens' plazaratu berri duen 'La xoragarría' diskaren beste abesti anitz entzungai izanen dira Bianan.

Kojon Prieto Azabache y los Huajalotes taldea Tafallan izanen da heldu den larunbatean bertako Cristal tabernan. Mariatxi iruindarrek duela gutxi kale-ratu zuten AEKrentzako eginiko kanta bat, eta abesti hori, eta beste rantxera anitz joko dituzte larunbatean Zidakosko herrian.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz El-karrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarizketak.

Antonio Aragon



Ebroko Konfederazioko burua

Itoizko urtegiaren lanen kontratua urtearen amaiera baino lehen sinatuko da, Antonio Aragon Konfederazioko buruak adierazi berri duenez. Lanak, baina, udaberria aldera hasiko dira, eguraldi onarekin. Ebroko Konfederazio Hidrografikoko presidentea eta Nafarroako Herri-lan Departamentuko buru ohia pozik azaldu zen gure lurraldean egiten ari diren lanak direla eta, eta El Ferial, Urdalur eta Val urtegiak aipatu zituen. Bitartean, Itoizko urtegiaren kontrako koordinakundeak kanpaina berri bati ekin dio, prentsari bidalitako iritziz artikuluen bidez.

Julian Retegi



Pilotaria

Eratsungo kirolariak ez du zorte handirik izan azken honetan, eta patuak izugarritzko dejada egin dio. Joan den astelehenean, eta usotegi bat paratu nahian zebilela, zuhaitzik erori eta mina hartu zuen ezkerreko belaunak, bere bizitzan hainbeste arazo eman dizkion belauna, hain zuzen. Hasieran gauza handirik ez zelakoan izango, baina azkenean meniskoko minak frontoitik kanpo utziko du Retegi. Tama-lez, lau t'erdiko torneoak, bere torneoak, hastear zegoela. Animoso agertu zen eratsundarra ospitalean, eta luze gabe berriro ikusiko dugu aurrekaldean.

Miguel Sola



Futbolaria

Txantreako jokalaririk ilehoriak bere bi taldeen omenaldia jaso zuen asteazken gauean El Sadarren, Osasuna eta Athleticen arteko partidaren aurretik. Joan den denboraldiaren amaieran utzi zuen ofizialki futbola Miguel Solak, eta ixil ixilik utzi, umiltasunez. Orain arte ez zitzaion aparteko errekonozimendurik egin, baina asteazkenean egin daitekeen modu onenez ospatu zen: gorritxo eta txurigorrien artean. Bera gabe, Osasunak galdu du azken urteotako jokalaririk onenetakoa, ez Bilbon ez Iruñean inoiz zorte handirik izan ez bazuen ere.

Jota txapeldunak

P.U. / IRUNEA

Tafallako Sota aizpak atera ziren garaile larunbatean Zidakosko hirian ospatu zen jota jaialdian. Bertan urte osoan zehar Nafarroan egindako txapelketetako garaileek hartu zuten parte, eta Ereta frontoia bete ez bazen ere, giro ona izan zen bertan. Jaialdia, berez, abuztuaren 8an zen ospatzekoa, baina euria zela eta atzeratu egin behar izan zuten ekitaldia.

Aurten XVI. edizioa zen, eta berritasun batekin. Orain arte beti abesten zuten jota libre bat, eta beste bat derrigorrezkoa zen. Aurten derrigorrezkoaren partez, jota berri bat abestu behar zuten partaideek eta esan daiteke aldaketa zeharo positiboa izan zela.

Haur, jubenil eta helduendako mailak izan ziren, eta horien barruan, binaka edo bakarka aritu zireñ partaideak. Haur mailan, bakarkan. Tafallako Ainhoa Gonzalezek irabazi zuen, eta bikotetan, Arantxa Diez eta Ainhoa Gonzalezek. Jubeniletan bakarka, Zaragozako Alicia Atrian nagusitu zen, eta bikotetan, Iruñeko Foñal Ahizpek irabazi zuten. Helduendako maila zen gehien estimatu zena, eta bertan, beste urte batez, Tafallako Elena Sotak erakutsi zuen nagusitasun handia. Bikotetan bezala, bere ahizpa Anarekin ere lehendabiziko saria eskuratu bait zuen.

Epaiketa lanetan jotazale eta

musikagileak izan ziren, eta beraien ondoren onartu zuten, sariak emateko erabakia «oso kostata» burutu zen. Hainbeste, ezen behin baino gehiagotan kasetetan grabatutakoa entzun behar izan zutela berriro. Hala ere, denak ez ziren guztiz bat etorri erabakiarekin, eta amaieran zenbait txistu ere aditu ahal izan zen.



Orbaizeta

Irabiako urtegiak beldurra eraman zuen Aezkoara

P.U. / IRUNEA

Astelehen goizean Orbaizetan, Orbaran eta Ariben txarrena espero zuten. Goizetik gogoz aritu zuen euria, eta zazpiak eta hamaikak bitarte metro bat t'erdigo zuen Irati ibarraren mailak. Euria ari zuen etengabe, eta bertako biztanle askok ibaira begira eman zuten goiza. Eguerdian, baina, egoera larriagotu egin zen, Irabiako urtegiak gainezka egin baitzuen.

Berrogei zentimetrotik gora hasi zen ura pasatzen, eta herrietako biztanleak, hogeitabost kilometro beherago, urtegiaren balizko hausdurak sor zitzakeen kalteak neurtzen hasiak ziren. Goardia Zibilak ebakuazioaren aukera ere aipatu zuen, eta Orbaran eta Ariben, zenbait bizilagunek utzi egin zituzten etxeak.

Bitartean, Diputazioko eta Iberdrola enpresako langileak urtegiraino heltzen saiatzen ziren. Errepidea baina, moztuta zegoen, eta pistetatik heldu behar izan zuten, ateak ireki ahal izateko. Hala ere, heldu eta irekitzeko gela ere ur azpian zegoen, eta azkenean, arratsaldeko hiruetan ireki zituzten. Iratiko ura, orduan, beste hogeitazentimetro igo zen, baina denek hartu zuten arnasa, Irabiako urtegiak eutsi egin bait zion urari.

Hala ere, kalte handiak utzi zituen bidean euriak. Ariben, kasu, hodian sarean egiten ari ziren lan guztiak hondatu zituen, eta baratza eta soto batzuk ere ureztatu zituen. Orbaizetan, Ariben eta Orbararekin errepidea moztuta zegoen, eta Arrotxapea auzoan zenbait etxe utzi egin behar izan zuten.



Garraldako Udalak omenaldia egin zion joan den igandean Pablo Mandazeni —Anaia Gines—, Euskaria erakundea eta Aezkoako Batzarrekin batera. Bertara Javier Markotegi Nafarroako Gobernuaren Kultura kontseilaria eta HB, EA eta EAJ-ko alderdien ordezkariak azaldu ziren.

Zaraitzuko Egunaren laugarren edizioa ospatu zen joan den igandean Ezkarozen, musika, folklore eta bazkari erraldoi batekin. Eguraldi kaskarrak zenbait ekitaldi egitea eragotzi egin zuen, baina Ibiltzeta, Eaurta eta Itzalen ospatutakoen aldean, jendetsuena izan zen aurtengoa.

Bianako zentru historikoa kultur ondare izendatu berri du Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu baten bidez. Bertan gordetzen dira oraindik Erdi Aroko eraikin franko, gehienak herria defenditzeko eginak.


Elizondo herriak plaza berri bat zabaldu zuen joan den igandean bertako abesbatza eta Juanito Erasó bere zuzendariaren omenez. Aurten abesbatzaren 50. urteurrena ospatuko dute, eta larunbatean egin zen omenaldi ofiziala, afaria eta abesbatzaren kontzertu batekin. Igandean, abesbatzak 'Ave Maria' musika lanaren jatorrizko partitura oparitu zion bere zuzendariari. Partitura hau Aita Donostiak egina zen espreki Aresoren ezkontzarako.



Fiteroko Udalaren PSNko zinegotziek lau hilabete eman dituzte udalbatzetara agertu gabe. Horren arrazoia, alkateak Josefa Alfaro zinegotzi sozialistaren kontra aurkeztutako kereila. Apirilean egindako udalbatzan, biraoka hasi ziren alkatea eta zinegotzia, eta hark kereila paratzea erabaki zuen, bere ohorearen aurka jo zuelakoan. Talde sozialistak, ordea, kereila kendu arte ez dela azalduko iragarri du.

Lizarrako dendariek Udalak paratutako zaborren gaineko zergak ez ordaintzea erabaki dute, «gehiiegizkoak» direlakoan. Udalak, berriz, zergak oso orekatuak direla dio, eta denak epera begira daude. Izan ere, aste honetan amaituko da zerga ordaintzeko epea, baina ehun bat dendari ez ordaintzearen alde azaldu dira. Eztabaidaren zioa beste urtetako zergeekin alderatuta izandako igoera da, orain arte zerga finkoa ordaintzen baitzen. Hemendik aurrera, ordea, langile bakoitzeko gehiago ordaindu beharko da.

Lesakako Laminaciones (AHV) eta Iruñeko Perfrisa (Ensidesa) lantegietako langileek gaur hasiko dute Madrilerako martxa, beren Oinez berezia. Hor ere erreibindikazioa izango da zioa, Espainiako Siderurgia Korporazioak (CSI) egin duen Konpetitibitate Egitasmoaren aurka. Plangintza honen helburuak bi enpresa nagusi horien produkzioa murriztea —sei milioi tonatik 4,5era—, langilegoa gutxitzea —10.000 lanpostu—, eta AHVk Sestaon eta Barakaldon dituen lantegi nagusiak kentzea dira. Sindikatuak gogor kritikatu dute plana, eta Nafarroako langileek, Bizkaikoekin batera, hilaren 26an azalduko dituzte euren kexak Madrilén.



Langileak Oinez

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

«Amaieraren hasiera da». Inoiz baino ezkorrago ageri dira sindikatuen ordezkariek Espainiako Koorporazio Siderurgikoak (CSI) egin duen Konpetitibitatearen egitasmoa dela eta, eta Enrique Lopez Lesakako Laminacionesen langileen batzordearen presidentearen hitzak asko dituzte gogoan. «Guk produkzioari eutsi nahi diogu, geure burua hornitu ahal izateko, lantegi nagusiak egiten duen guztia lantegi txikietan burutzeko, baina haiek ez dute nahi». 'Haiek', CSI, Ensidesa eta Bizkaiko labe garaiak (AHV) elkartzeko dituen enpresaren arduradunak dira, 10.000 lanpostu kentzeko egitasmoa burutu dutenak. «Ez diote siderurgiari eutsi nahi».

SINDIKATUEN PROPOSAMENEI MUZIN

Euskal Herriko siderurgik jasaten duen bigarren birmoldaketa da honakoa. Lehendabizikoa egin zenean, 80ko hamarkadaren erdian, 6.000 langile inguru kale-ratu zituzten. AHV franko murriztu zen, eta oraingo honetan, oinarritzko aldatuta eman nahi diote Bizkaian eta Nafarroan lantegiak dituen enpresa honi eze-



Lesakako lantegian AHVko produkzio gehiena osatzen da. S. SALSAMENDI

zik, baita Ensidesari ere. Oraingo argudioa mundu osoan dagoen egoera kezkarria da, antzeko birmoldaketak ematen ari bait dira Europa osoan, baina sindikatuak kexu dira, plangintza burutzerakoan planteatu dituzten proposamenei egindako arbuioa dela eta. «Lehendabiziko birmoldaketa gaizki egin zen, eta soilik plangintza laborala bete zen—dio Lopez—». Orain beste bat egin nahi dute, eta gu, gure zatia betetzeko prest gaude, baina parte hartu nahi genuen. Ez digu utzi; muzin egin bait diete aurkeztutako mozio guztiei».

Sei hilabeteko negoziazioen emaitza eskasa ikusita, neurri go-

gorragoak hartzea erabaki dute sindikatuak, inoiz baino elkartuagoak. Gaur bertan abiatuko dira Nafarroa zein Bizkaitik, Madrilén amaituko den Oinez berezi honetan. Nafarrak autobusez aterako dira Iruñetik, Industria Kontseilaritzan egon ondoren, eta Bizkaitik ateratakoen bila joango dira.

HILAREN 26AN MADRILEN

Bidaia errenditzeko data hilaren 26an paratu dute, eta han Euskal Herriatik etorritako familiariekin elkartuko dira. Industria eta Lan Ministerioen aurrean. Beren helburua, orain arte lortu ez dutena: proposamenak onar-

ditzabela CSIn. «Egitasmo industrial aldatu, alda daiteke, eta jende guztiak onar lezake. Baina ez dago horretarako borondate-rik, eta CSIk jubilazio onak baino ez ditu eskaintzen».


Ez omen da oso borroka erreza izango. Bi enpresa erraldoi hauek konpetitiboak egiteko eta benetako birmoldaketa egin ahal izateko 600.000 milioi pezetan inguru beharko litzateke, eta Espainiako egoera ekonomikoa ezagututa, zaila dirudi horretarako borondatea izatea.

Oraingo egitasmoaren arabera, Espainiako Gobernuaren onepenenarekin, AHV Sestaon duen lantegi nagusia itxi eta altxairu trinkorako beste zentru bat eraikiko du. Produkzioa, era berean, franko murriztuko da —1,5 milioi tonatik 900.000 tonara—. Horrelako ekoizpenarekin, eta gaur egungo egiturarekin, Lesakako lantegiak ezin izango luke % 100ean aritu, eta gainontzeko materiala kanpoan erosi beharko luke. Sindikatuen ustetan, bi alternatibak «zentzugabekoak» dira. «Gure lantegia ixteak Ensidesari erosteko ez dauka zentzurik, eta merkatu librean sartzen bagara, nahikoa produkzio eta merkea beti izango dugulako ziurtasun apurrik ez dago».

Arlo industrial, eztabaidatuena

A.B. / IRUNEA

Edozein birmoldaketatan hiru arlo bereizten dira beti: industria, hau da, zer-nolako helburuak lortu nahi diren birmoldaketarekin; laborala, hots, zer aldatu egin behar diren langilegoan helburu horiek lortzeko; eta finantzarioa, hau da, nondik atera behar diren baliabideak birmoldaketa aurrera atera ahal izateko.



Espainiako Siderurgia Korporazioak (CSI) apirillean aurkeztu zuen Konpetitibitate Egitasmoaren punturik eztabaidagarriena ez da laborala izan, 10.000 lanpostu kentzea proposatzen badu ere, industriala baizik. «Guk onartzen ditugu langileei dagozkigun sakrifizioak, baina produkzioaren murrizketa, ez, inondik inora». Enrique

Lopez Lesakako Laminacionesen langile batzordeko buruarekin bat datozen sindikatu guztiak.

Plangintzaren arabera, Ensidesa eta Bizkaiko labe garaiak (AHV) egun duten 6 milioi tonako produkzioa 4,5 milioira murriztuko da, eta horrek izugarriko eragina izango du, bereziki AHVk Bizkaian dituen lantegietan. Sestaon eta Barakaldoko zentroetan dauden 3.542 langileak, kasu, 640 izango lirateke 2000. urtean. Lesakan, ordea, ez litzateke adinako eragina somatuko —1.960tik 1.772ra—.

Ensidesaren kasua are larriagoa da oraindik, enpresak egun dituen 17.265 langileetatik



Perfrisa, Ensidesa enpresaren lantegia Nafarroan.

JOXE LACALLE

10.923 izango bait lirateke 1996. urtean. Perfrisak ere nabarmen nabaritutako luke birmoldaketa: 128 langile gutxiago izango luke 1994ean: —574etik 446ra—.

Sarritan azpimarratu da Administrazioetatik Nafarroan produkzioaren murrizketa ez dela izango, eta langilegoaren aldetik ere oso eragin eskasa nabarmen-tzen du Nafarroako Gobernuak, baina sindikatuak ez datoz bat horrekin. «AHV eta Ensidesa izugarri murrizten badira, Nafarroako enpresek, haien adarrak eta zatiak izanda, ez dute etorkizun handirik».

CSIk apustua egin du zentro bakoitzaren espezializazioaren

alde, baina horretarako inbertsioak benetan eskasak dira. 600.000 milioi pezetan aipatu dira goitiki beherako birmoldaketarako, baina Bizkaia eta Nafarroako enpresek, kasu, soilik 78.000 milioi jasoko dute. Eta 70.000 Sestaon eraikiko den altzairugintza konpaktoaren zentroarako.

Nafarroari dagokionez, ikerkuntza zentro bat paratzeko asmoa dauka enpresak, barruko prozesuen optimizaziorako. Egitasmoaren arabera, ikerkuntza salmenten % 0,7 inbertituko da, orain inbertitzen den % 0,2ren ordez. Europan produkzioaren % 0,8 eta % 2,1 birtarte inbertitzen da arlo berean.

mintzoak

Laberik gabeko garaiak

JOSEBA AIARZA

Euskal Herriko industriaren Emotore eta adierazgarri nagusia izan den Bizkaiko labe garaiak (AHV), egun krisialdiak jota dagoen industria beraren birmoldaketaren adibiderik latzena dugu. Nazioarteko ekonomia atzerapen edo moteltze garaian delarik, AHV birmoldatzera eraman duen arrazoiaren artean honako hauek daude: 20.000 milioi pezetatik gorako diru galerak urteko, enpresaren produktibitate eskasa Europako lehiakideen aurrean, eskari urriak eragindako jaitziera altzairuaren prezioan eta irizpide politikoekin egindako gestio iluna.

Gauzak horrela, enpresaren etorkizunari buruz luze eztabaidatu ondoren, Espainiako agintariek (AHVren ugazabak) enpresari burua mozteko erabakia hartu zuten. Lehen pausua Estatuko bi enpresa siderurgikoak (AHV eta Ensidesa) elkartzea izan zen. Hortik Korporazio Siderurgikoa (CSI) sortu zen.

Geroago, CSIk arduradunek bi enpresatzako bideragarritasun plana iragarri zuten. Plan horren diseinua asko atzeratu zen egun konpondu gabe dirauen

'nabardura' xume batengatik: finantzazioa. Izan ere, oraindik inork ez daki zehazki nondik irtingo diren plan guztia martxan jartzeko beharko diren 600.000 milioi pezetak.

Egitasmo horrek ez du jaso ez sindikatuen oneritzia ez euskal agintarien erabateko onepena ere, inor pozik ez egoteko moduko neurriak bait dakartza: Sestaoko lantegi nagusiak labeak itxi eta altzairutegi txiki bat eraikitzea, Siderurgiaren produkzio ahalmena nabarmen gutxitzea, Europako Komunitatearen baimena lortzeko eta azkenik, 10.000 lanpostu kentzea.

Bitartean, Eusko Jaurlaritzaren isiltasunak Madrileko agintarien egitasmoekin konforme dagoela pentsarazten du. Adostasun hori birmoldaketaren osten sortuko den 'V' izeneko sozietate berrian euskal Administrazioak izango duen partaidetza isladatuko da. Horren partaide izango da baita ere Nafarroako Gobernuak. Era honetan lortu nahi du Madrilek, neurri batean, prozesuaren finantzazioa, Ensidesaren eta AHVren antzinako jabeek (INI eta BEX) ez bait dute ezer jakin nahi.

Leihoa

● Haur-denboran, pasilloko argia pizturik uzten zioten, beldurrik ez izateko gauetz. Baina begiak erdi itxi eta mairindiek sudur azpiraino eramaten zituen, gela barrerako leihoko kristalean argi piztu hura hori-koloreko animalia nola bihurtzen zen ikusten zuen ikarua. Jirafa, alegia. Ez al dira ipuin guztietako jirafak hori-kolorekoak?

Leihok batera begiratzen zuten eskolatik bueltan, ia egunero, liburuak besapean zituela karrikan barna onie etortzen zelarik. Arrats deskontsolatuenetan, egunkari izkutan, amodioa deklaratzeko zion nexka emakumetuek berria han ikusteko espejantzerekin.

Herri handira etorri behar izan zuten, deserrira. Leihorekin hegian ukondoak paratu eta karrikaren bertze aldeko etxearen paretan ikusita amets egiten zuten. Herri txikiarekin amets. Eta bidenabar ikusi pareko leihok guztiak, erakusketak bateko koadro mugikorak balira bezala: beti ohatzetik jeiki berria ematen zuen aitona, donkijotearren iduria zen pintorea, alfondretako hautsa harrotzen zuten etxeoandrea, eskolako lanak egin zitzen

logelan preso kastigatzen zuten ikasle aspertua, eta egunero arratsaldeko seietan etxetik ateratzen ziren arte bera bezalaxe begira eta irri txikiak eginez egoten ziren bi emakume estrainio haiek, ile hori artifizialezkoa bata eta ile beltzaren artifizialezkoa bertzea. Bazuen lagun bat, zeinari zure bihotza ene aingura erran baitzion, poeta hari gau batean ebatsitako hitzak bere eginez. Ilargia leihok bakar, gauaren gelan josi zituzten ezpainak lehenbiziko aldiz. Leihorik gabeko gela jostailuzkoa zirudien hartan goxatu ziren hamekaten: ez aire epel hark ihes egiteko zirrikiturik ez lekukorik nahi, dena haienartak bakarrik.

Bertzeren leihorik ireki du eta bertze leihorik ireki dio, eta horrela ezagutu ditu paraje zoragarriak, hala izan ez balitz sekula ikusiko ez zituenak. Eta berak ere aunitzi ireki dizkio bereak, bere baitara sar zitezen. Baina, espero gabe leihok itxi eta harenara sartzea galeraz dionik ere bada.

Eta hor dabil orain, bere leihoekin harat-hunat, eta leihotara begira, batzuenetan haurtzaroko jirafa beldurgaria ikusten du eta bertzeenetan

gaxte-denborako leihoko nexka ametsetakoa ikustea espero izaten du. Izan ere, denak holaxe gabiltza, geronez apaindu ditugun leihok daramatzagula, batzuk leihok beti zabalik, bertzeak neren ez haiz sartuko erraz bezala, eta gehienak nolako eguraldia egiten duen.

Leihorekin bueltaka dugu Javier Irazoki ere (Frantsisko erraten dio Patzikuk), beretzat poesia leihok bat da, bere begiei mugarik gabeko lurralde bat eskaintzen diena. Koadro bat behar dugu, leihok bat, bertatik mundua begiratzeko, eta leihok hori, gainera, isplua ere bada, erratan du Sarrionaindiak. Batzuetan jartzen naiz leihotik begira, Atxaga-Ordorikak. Ama begira zuten leihotik plazara, kanta zaharrak. Eta gehiago ere izan dira, gurean eta guretik kanpora, leihotik edo leihotara begiratzen dutenak.

Nik ere paper puxka hau hartu dut oraingoan, leihok gisara, gogorazio txoro hauek harrika botatzeko. Zeinek hartu nahi dituen, harentzat.



Mikel Taberna Itzultzailea

Gazteendako Zokoa

Txirriskil arrunta

Serinus serinus

Nafarroa osoan ugaria
Herri zein hirietan
Mediterraneo du jatorria



Naboazi jalia


Berdea eta hori kolorekoa, txori txiki hau, fringilidos familiakoa, oso zabaldua dago Nafarroa osoan, iparraldean zein hegoaldean, ekialdean zein mendebaldean, eta oso ezaguna da hegoaldeko baserrietan eta herri txikietan, arbiaren haziekiko duen zaletasun aparta dela eta. Hainbeste, ezen Etxarri-Aranatzan 'naboazi jalia' deitzen diotela.

Errute garaian —udaberri eta udan— arrak hegaldi bereziak egiten ditu, eta kantu berezien bidez, gora eta behera aritzen da, zirkuluak eginez.

Zuhaitz zein sastraketan parratzen du kabi arrunta, belarra, sustraiak eta goroldioz egindakoa, eta gero barrutik luma eta ileez betetakoa.

Mediterraneoko espeziea da, baina urteren poderioz Erteuropako zona zabaletara hedatu eta ugaltu da. Herrimina balu bezala, horra joan direnek, urtero egiten dute migrazioa, baina Mediterraneo ingurukoak bertan gelditzen dira.

Oso ongi egokitu da hirira, eta bertako zuhaitzetan erruten du. Hala ere, ingururik gogokoena herrien ingurua du, zuhaitzetan, baina zona zabaletatik gertu.



Irudimena landuz

AITOR GASTON

Irudimenaz irudi bat eraiki behar duzu zure barnean. Imajinatu hondartza batean zaudela. Olatuak heltzen diren lekuan, zutik, itsasora begira zaude.

Ez duzu itsasoa besterik ikusten. Hondartzan jarraitzen duzu oinak busti gabe, ezkerraldean dauden haitz batzuetara heldu arte.

Han mendian gora doan bide bat jaiotzen da, eta tontorrean herri bat dago, harresiz inguratutako herri bat, hain zuzen.

Bidean gora abiatzen zara, pinuen artean, pixkanaka-pixkanaka. Tontorrera heltzen zarenean, bidea, harresia zeharkatuz, herrian barna nola sartzen den antzematen duzu.

Herrian sartzen zara, kale na-

gusiari jarraituz. Kale estuak eta ilunak dira. Ez dago argi asko, eguzkia jadanik sartu egin dela-

Buelta asko eman ondoren, ondorio bat atera dut: zientzilaria hain jakintsuak izanda zergatik ez dakite bizitza ondo pasatzeko sortu zutela?

ko. Kaleei jarraitzen diezu, erdi galduta zaude.

Bat-batean argia ikusten duzu

etxe bateko leihoan. Jakinminak zirikatut egiten zaitu eta sartzen zara.

Denda bat da, apalez beterik, eta apalategian edozein motatako gauzak. Begiratzaren dituzu eta objektu bat aukeratu eta hartu egiten duzu.

Lehenengo bidea berregiten duzu, kale estuak utziz. Kale nagusiari jarraituz herria uzten duzu eta basoko bidea jeitsiz hondartzara heltzen zara berriro.

Berriro hondartzan zaude itsasora begira. Hartu duzun objektua begiratzaren duzu. Hondartzan jende gehiago dagoela antzematen duzu, eta haiek ere bere objektu propioa dute.

Orain, esango al zenidake zer den aukeratu duzuna?

KAZKARROAN

Zaharrak Berri

Mutiko putiko, axola gutiko. Mutikoek jolasak baino axola gehiagorik ez.

Aezkoa

Zineman, pelikula ezin aspergarriagoa botatzen ari ziren. Ikusle bat loak hartu zuen, eta zurrunka hasi.

Atzekoak:

—Aizu, ez zazu zurrunkarik egin, aretoko jende guztia esnatuko duzu eta!



BASAJAUN

Itsasoa funtsezko ingurua da lurberan dauden bizitza moten barruan, eta, era berean, giza-kumeak ahaztuenetakoa da, behintzat kalte ekologikoei dagokienez. Iberiar penintsularen mendebaldean, giza-kumearen jarduerak zuzen jo duen itsasoa dugu Mediterraneo. Turismoaren espekulazioa, kirol portuak, hondartza artifizialak, bere inguruan egin diren lan guztiak, giza-kumearen betirako azarnak izango ditu gogor kaltetutako itsaso honek. Hondakin toxikoek ere zuzen jo dute, Peñarroya S.A. enpresak Portman badien (Murztzia) egiten zituenak, kasu. Egunero, 7.000 tona botatzen ziren itsasora, moral eta etika falta izugarriarekin. Kutsadura, hein handi batean, paperak ekoizten duten enpresetatik dator. Torras, Scott eta Sarriok, Herce-rekin batera, 14.080 tona hondakin organokloratuak botatzen dituzte urtero, arazteko gutxienezko sistemarik gabe. Mediterraneo hidrokarburoak, petrolio eta deribatuetan kutsadurarik handiena duen itsasoa da. Hondakin guzti hauek birfindegitik eta arlo honetako jardueratik datoz. Halaber, hirietatik datozen hondakin solidoak, nekazaritzak eta abeltzaintzak sortzen dituenekin batera, algen benetako izurriteak ekarri dituzte azken urteotan. Hauek, usteltzerakoan, oxigeno kopuru handiak kontsumitzen dituzte, eta beste organismoei kalte handia eragiten diete. Bertako animalia askok horren eragin zuzenda jasaten dute, eta itxas txakur fraide (*monachus monachus*) espezieren ale bakarra dago bertan.


Jenero Xumekoak

Besamotza

Besamotza bertso saltzaile bat zen. Seguraski, Euskal Herrian inoiz izan den bertso saltzailerik ezagunena. Bizkaian, Urdu-lizen jaioa zen. Harrobi batean egiten zuen lan. Baina, egun batez, desgaraian lehertu zen tiro batek bi eskuak kendu zizkion. Boza ederra zuen. Jeneralean paper saltzen zebiltzanak, gehienak ezta onekoak izaten ziren, bestela ez bait du balio. Eliz atarian, plazetan eta horrelakoetan kantari hasita jarriko zen. Besamotzak hamarna zentimutan saltzen zituen paperak. Jaten ez nuen behin ere ikusi. Ez dakit nola mantentzen zen.

(Joanito Dorronsororen 'Bertsotan' liburutik)

JEREMIAS ERRO

HITZ
GURUTZATUAK

EZKER-ESKUIN: 1.- Lokarria. Burutu. 2.- Atabal-jole. 3.- Substantzia. Daude. 4.- Oinarritzko edaria. Pluralean ikasleek osaturiko musikataldea. 5.- Kontsonantea. Herri hizkeran Beatriz. Tona. 6.- Bizitasun handikoa. Bete. 7.- Barazki lekadun. Alderantziz ordaina. 8.- Belearen habia. 9.- Trebe. Hari zuen.

GOITIK-BEHERA: 1.- Etxeetan bizi ohi den marraskari arrunta. ...Anderson, travesti ezaguna. 2.- Otarreak egiten dituen. 3.- Portua. Zurezko goilare handia. 4.- Aita. Irain. 5.- Lehenengoa. Infusio mota. Piotasoa. 6.- Berastegiko auzoa. Joan den urtean. 7.- Kasko. Barazki mota. 8.- Irrati saio. 9.- Toka, noa. Erran.

Bizi Bizian

Heldu den igandean burutuko da Mezkirizko frontoian Bost-Kirolaren aurtengo finala, hamaikagarrrena dagoeneko. Bertan Pello Erbiti iruindarra eta Jose Javier Larrea oroztarra arituko dira elkarren aurrean. Erbitiren indarra Larrearen trebetasunaren aurka. Txapelketa berezi samar honen finalean —bost partidutara— batek baino gehiagok somatuko du Iñaki Arrosagarai luzaidarraren hutsa, zortzi urtez txapel-dun izana. Baina berak azaltzen duenez, finala hau «ezin interesgarriagoa» izango da.

KAPITANSORO / IRUNEA

Final arraro samarra izango da aurtengoa, txapelketa hau sortu zenetik. duela hamaika urte, Iñaki Arrosagarai luzaidarraren hirugarren hutsa izango bait da. Gehiegitxo bere joku apartarekin ohituta zeuden zaletuendako. Pilotari honek izugarritzko erreztasunarekin menderatu ditu urte guzti hauetan zehar txapelketa, eta soilik 1990an, Cubako Mundialetan zegoelako, eta aurtent, txapelketa hasi eta ezkondu zelako, ez du parte hartu. Beste urte guztietan, 1982ko bere estrenaldia- ren urtean izan ezik, txapela jantzi du.


Alde batetik horregatik, eta bestaldetik bi jokalaria-riak sasoi onean daudelako, Erbiti eta Larrearen arteko final hau inoiz baino irekiagoa izango da. Gainera, eta biak erdifiketaren erraz antzera nagusitu baziren ere, urtetik urtera berdintasun handiagoa erakusten dute pilotariek, eta lehia azken unera arte ez da erabakiko. «Orain ez da ikusten lehengo 22-0 horiek —azaltzen du Fermin Dufur antolatzaile-ko batek—, eta pilotariek urte osoan zehar entrenatzen dute txapelketa honetarako». Izan ere, gogorra bait da oso.

Pilotariek bost modalitateko lehia dute aurrean, eta azken emaitza bost partiduetan lortutako puntuazioaren batuketara da. Hau da, ez dira partiduetan zenbatzen, tantuak baizik. Hasieran pala motza, larruzko paleta, share, gomazko paleta eta eskukoa ziren modalitateak, baina duela

hiru urte, eta joko-garbi berreskuratu nahian, gomazko paleta kendu zuten eta Nafarroan galduta zegoen antzinako modalitate hau sartu. Honek beldurtu egin du zenbait pilotari, eta partaidetza oso urria izan da aurtent: soilik hamabost. Lehendabiziko urtean


berrogeitabost izan ziren. «Pixkanaka-pixkanaka asmatzen ari dira joko-garbiarekin —dio Dufurrek—, baina dudarik gabe, hori da gehien kostatzen zaiena. Sharekin gauza bera gertatu zitzaigun, eta lehendabiziko txapelketak farre egitekoak ziren».

de, Irurita eta Agoizko partaideak izan dira, eta inoiz baino gutxiago izanda ere, sekulan baino maila handiagoa erakutsi dute. Hori bai, zaletuek beti gogoratuko dute 1992ko edizioan Arrosagarai-ek ez zuela parte hartu txapelketa honetan.



Arrosagarai, bost modalitatean kontrakorik gabekoa.

XABI VENTURA



Joko-garbi da Bost-Kirolean sartutako azken modalitatea.

XABIER LANDA

Arrosagarai txapelduna

M.K. / IRUNEA

Iñaki Arrosagarai luzaidarra izan da jaun eta jabe parte hartu dituen txapelketa guztietan, eta 1983tik aurrera, urtero jantzi du txapela, 1990an izan ezik, ez bait zuen parte hartu. Bost-Kirolean aritzen diren gehienak ez bezala, Arrosagarai eskuz hasi zen pilotarekin bere harremana. «Luzaiden zazpi urterekin hasi ginen jokatzeko, eskolan eta. Ondoren, herrien arteko txapelketetan hasi nintzen, oso fama handikoak garai hartan, partaidetza handia izaten bait zen: Mezkitritz, Orotz-Betelu, Erronkari, Eaurta, Auritz... Gero guzti hau galdu zen».

Luzaiden betidanik izan da pilotarekiko zaletasun berezia,

ondoko beste herrietan eta Nafarroa Behereko anitzetan bezala, eta bertakoek gogoan dituzte oraindik herrien arteko apustuak eta lehiak, mendiak eta mugek sortzen duten konplizitatea lekuko. «Guzti hori galdu egin da —dio Arrosagarai—. Oroitzen naiz herriko plazan hogeitabat mutikok jokatzeko genuenean. Hor zeuden Arretxe, Etxarri, eta beste asko, eta gaur egun ez da ikusten jendea pilotan».

Heldu den urtean, Arrosagarai berriro parte hartuko du Bost-Kirolean. «Erretiratzea? ez, ez, —dio barrezka—. Aurtent urte sabatikoa hartu dut, baina heldu den urtean han izanen naiz». Txapeldun urte askotarako, beraz.

Joaquin Corretge

.....txakur hezlea

Pasa den igandean 112 arraza ezberdinetako 700 txakur inguru bildu ziren Iruñean, IV. Nazioarteko Txakur Erakusketan. Arraza ezaguk, exotikoak, txikiak, erraldoiak, harrigarriak, animalia

honen familia gehienak ikusteko parada izan zen. Nafarroako Txakur Elkartea da erakusketa honen antolatzailea, eta Joaquin Corretge bertako presidentearen arabera ospe handia hartu du azken urteotan.

«Txakurraren estimua bere erabilerarekin lotuta dago»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Joan den igandeko erakustokira 112 txakur arraza azaldu ziren, bakoitza bere *pedegree*-arekin. Txakur arraza bat sortzeko eta onartzeko prozesua nola osatzen da?

JOAQUIN CORRETGE.— Txakur arrazak finkatuta daude dagoeneko, eta Nazioarteko Zineologi Federazioa (NFC) da horretaz arduratzen den erakundea. Bertan lurralde

gehienak elkartzen dira eta berak zehazten ditu arrazak. Hauek ez dira sortzen egun batetik bestera, eta urteren poderioz finkatuta dituzte ezaugarriak. Arraza bakoitzarekin txakur tipoa

egiten da, hau da, txakur horrek zer-nolako ezaugarriak izan behar dituen. Oraindik, hala ere, badaude onetsi ez diren zenbait txakur arraza, Kanariar irletako ehiza txakurra kasu, eta hango txakurzaleen lana da arraza horren ezaugarri zehatzak aurkezte, NFCk onar dezan. Hala ere, gero eta gutxiago aurkezten dira, esan bezala, arraza gehienak finkatuta daudelako.

EGUNKARIA.— Baina arraza horiek zehazteko selekzio prozesuan ezaugarri batzuk aldatu eta hobetu egingo dira.

CORRETGE.— Bai, hala da. Txakur guztiek bazuten behiala era-

bilera bat: artzaintzarako, defentsarako edo lagun egiteko. Eta gizarteak berak, nahasketen bidez, aukeratu egin zuen behar zuena. Hortik sortu dira arraza ezberdinak.

EGUNKARIA.— Arrazaren hautaketarako prozesu honetan, 'txakur bikainen' bila, ez al dago edozein txakur mota, nahasia izateagatik, mesprezatzeko arriskua?


CORRETGE.— Zuk txakur nahasi bat hartzen baduzu, eta beste txakur batekin nahasten baduzu, edozein motatakoa ater daiteke. Hori ez da sekulan gertatzen arraza txakurrekin, horiengandik beti aterako bait dira mota bere bereko txakurak. Horregatik, guk arraza bultzatzen dugu.

EGUNKARIA.— Arraza ezberdinen artean estimu handiagoa izan dezake arraza batek, besteak baino? Nola aztertzen da?

CORRETGE.— Hori jabearen araberakoa da. Adibidez, ehiza txakurra baldin bada, ehiztariak estimatuko du bereziki arraza hori. Eskimal batendako, hango txakurra izango da preziatuena. Hau da, estimua bere erabilerarekin lotuta dago.

EGUNKARIA.— Eta zergatik da txakurra gizakumearekin hobekien moldatzen den animalia?

CORRETGE.— Txakurra bi jato-



Joaquin Corretge bere txakurrekin.

JOXE LACALLE

ri ditu. Batetik, txakaletik, eta, bestetik, otso artikutik. Biak basatiak dira, eta gizakumeak egin duen gauza bakarra animalia horiek hezitzea izan da. Zergatik? horren erantzuna oso zaila da. Egiptiarrek, kasu, katajineta zuten gogoko animalia, eta arabiarrek katuak zituzten etxeetan. Orain, txakurra da, baina hori ere alda daiteke urteen poderioz.

EGUNKARIA.— Igandean egin zenuten erakusketan zazpiehun bat txakur aurkeztu zituzten. Hori bere txakurra eramaten duen jendea profesionala da edo edozeinek aurkeztu dezake bere txakurra?

CORRETGE.— Bietatik dago. Badago txakurren zainketa edo heziketa lanbidea duen jendea, baina gehienak zaletuak dira. Txa-

kur guztiek *pedegree*-a eduki behar dute, beren arraza ziurtatzeko, baina jabeak mota guztietakoak dira.

EGUNKARIA.— Eta arraza txakur bat izanda, oso zaila al da horrelako lehiaketarako prestatzea?

CORRETGE.— Txakurra hezitzeko bidea oso luzea eta frantkotan zaila da. Gainera, txakurraren aiurriak ere badu zer esanik. Badaude oso lotsatiak direnak, oso alaiak, aiur txarrekoak... Eta badaude ikasteko jarrera hobea dutenak ere.

EGUNKARIA.— Nola hartzen du parte Txakur Elkartek txakurra eta, oro har, animaliak babesteko egiten diren kanpainenak?

CORRETGE.— Nafarroan aurkeztu zen bere garaian Animalien Babeserako lege proiektua, eta guk ere parte hartu genuen bertan. Guk nahiko genuke txakur guztiak markatuak izatea, jabearen datuak erakutsiko lituz-

keen marka batekin. Izan ere, txakurra galtzen bada, nekez erakuts dezake jabeak txakurra berarena dela. Halaber, udan edo, txakurra deslai utziz gero, salatu ahal izango litzateke jabea. Beste proposamena animalien babesa da. Hau da, jabeak txakurra gaizki tratatuz gero, bere kontrako salaketa jartzea, gizakumeekin egiten den bezala.

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

